

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gutzira 40 enpresa batuko dituen “Alimentaria 2014” azokan parte hartuko du Nafarroak datorren astean

Nazioarte-mailan sektore honetako hitzordu garrantzitsuenetakoa den hau Bartzelonan izango da martxoaren 31tik apirilaren 3a bitarte

Viernes, 28 de marzo de 2014

Nafarroak "Alimentaria 2004" azokan parte hartuko du datorren astean, nazioarte-mailan sektoreko azoka garrantzitsuenetako batean. Gutzira, 40 enpresa bilduko dira eta beren produktuak aurkeztuko dituzte Bartzelonan, martxoaren 31tik apirilaren 3a bitarte.

40 enpresa horietatik, guztiak nekazaritza-elikaduraren industriako hainbat sektoretakoak, 22k Nafarroako Gobernuaren laguntza ekonomikoaren bidez egiten dute, eta beste 18k, norberaren izenean.

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak datorren asteartean, apirilak 1, bisitatuko du azoka, eta harekin batera izango da ere, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari José Javier Esparza. Foru Komunitatearen ordezkariak 427 m²-ko pabiloi instituzionala izango du.

Elikagai eta edarien fabrikazio nahiz banaketan buru diren mundu guztiko 3.800 enpresa baino gehiago batzea espero da azokan; 85.500 m² okupatuko dute erakusketarako eta ekintza osagarriak egiteko, eta 140.000 bat bisitarik parte-hartzea espero da, % 35 atzerritik etorrita.

Nafarroako bigarren sektore industrialia

Nafarroak 1984tik parte hartzen du erakusketan, eta nekazaritza-elikaduraren industriako barietate, kalitate eta profesionaltasunaren erakusketa garrantzitsu batekin agertuko da, sistema industrial guztian pisu espezifiko handiena duen bigarren jarduera, eta horrek Foru Komunitateko oinarri sozio-ekonomikoetako bat bihurtzen du.

Nekazaritza-elikaduraren sektorea Nafarroako BEGaren (Balio Erantsi Gordina) % 6,7 da eta industriako BEGaren % 23. 1.370 enpresa eta 24.000 nekazaritza-ustiapen daude sektoreari lotuta. 25.000 pertsonari ematen diela lana kalkulatu da.

Sektore hau arlo esportatzailean ere oso aktiboa da. 2013an, 875



Upategi baten irudia.

milioi euroko balioa zuten nekazaritza-elikadurako produktuak esportatu ziren (esportazio guztien % 11,84), hau da, aurreko urtearekin alderatuz % 12,3ko igoera (779 milioi izan ziren 2012an). Horrek esan nahi du esportazioak alor horretan Nafarroako esportazio guztiak baino (% 2) 6 aldiz gehiago igo zirela.

Gainera, nekazaritza-elikaduraren industriak lurraldea egituratzen laguntzen du eta, bereziki, ureztapenak bere inguruko industriak erakartzen ditu, erraz deslokalizatzen ez diren industriak eta inguruan sustraiak botatzen dituztenak.

Nafarroako Gobernuarekin parte hartzen duten enpresak

-Autonomien pabiloia: Aceites La Maja (Mendabia), Katealde Artesanos (Altsasu), Aceites Sandua (Ablitas), M. Etxenike (Aurizperri) eta Ubidea (Bera).

-Expoconser-en pabiloia: Conservas Anko (Cadreita), Conservas Pedro Luis (Lodosa), Conservas El Navarrico (San Adrián), Aceitunas El Cabildo (Andosilla) eta Conservas Vela (Mendabia).

-Intervin-en pabiloia: Bodega Inurrieta (Faltzes), Bodegas Artajona (Artaxona), Envasados Eva (Lekunberri), Bodegas Vega del Castillo (Erriberri), Bodegas Tandem (Lorka), Bodegas Corellanas (Corella), Viña Aliaga (Corella).

-Interlact-en pabiloia: Lácteos Goshua (Iraizoz).

-Intercarn-en pabiloia: Embutidos Galar (Tafalla).

-Congelexpo-ren pabiloia: Fridela (Tutera).

-Mundidulce pabiloia: Pastas Urrutia (Ujué) eta Antonio Anaut (Pitillas).

Era independentean parte hartutako enpresak

-Espacio Premium-Nazioarteko Pabiloia: Conservas La Catedral (Mendabia), Abbae de Queiles (Monteagudo).

-Intervin: Bodegas del Romero (Cascante), Grupo La Navarra (Viana), Licores Baines (Iruña), Bodegas Marqués de Montecierzo (Castejon), Castillo de Monjardín (Villamayor de Monjardin), Hacienda y Viñedos Marqués del Atrio (Mendabia), eta Haimi, S.L. –makinaria- (Azkoien).

-Expoconser: Conservas Angel Ria (Cadreita), Aceitunas Sarasa S.A. (Andosilla), eta Impex Medrano (Tutera).

-Multiproducto: Mahnmac Delicatessen S.L. (Lodosa), eta Frutos Secos de Navarra S.A. (Andosilla).

-Interlact: Quesos La Vasco Navarra (Olazti).

-Intercarn: Papeles El Carmen (Altuza).

-Congelexpo: Tutti Pasta, S.A (Ezkirotz).

-Restaurama: Urrobi S.L. (Noain).